



Esp.-kodea: 2016SAPL0004

**UDAL PLENOA**  
**Bilkura arrunta**

**BILKURA DATUAK**

EGUNA: 2016/05/03	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 - 18:55	

**BILDUTAKOAK:**

Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)

Zinegotziak: Ibon Arrupe Aldecocea (EAJ-PNV)  
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)  
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)  
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)  
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)  
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)  
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)  
Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)  
Amaia Larrañaga Galdos (EH BILDU)  
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (EH BILDU)  
Maialen Zabaleta Madinabeitia (EH BILDU)  
Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU)  
Itxaro Artola Lizarralde (EH BILDU)  
Urki Larrea Ibabe (EH BILDU)  
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)  
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)  
Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)  
Igor Urizar Murgoitio (Baleike)  
Eva Abuin Bideburu (Baleike)  
Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

**BILDU EZ DIREN**  
**UDALKIDEAK:**



Esp.-kodea: 2016SAPL0004

**BERTARATZE**  
**ETA IRTEERAK:**

Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):** Arratsaldeon guztioi, beno gutxi gorabehera zinegotzi guztiak gaude hemen, eta Plenoari hasiera ematera goaz.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

2016ko apirilaren 19ko bilkurako akta, aho batez, onartzen da.

**2.- BALEIKE UDAL TALDEKO BOZERAMAILE ALDAKETAREN BERRI EMATEA (2015SKOR0001)**

Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko 24 eta 25 artikuluetan eta Udal Araudi Organikoaren 14. artikuluan eta hurrengoetan aurrikusitakoaren arabera, 2015eko uztailaren 13ko osoko bilkuran eraturako udal taldeen eta hauen bozeramaileen berri eman zen. Horien tartean honakoaren berri:

*4.- Udal Taldea: **BALEIKE***

<i>Partaideak:</i>	<i>Igor Urizar Murgoitio</i>
	<i>Eva Abuin Bideburu</i>
<i>Bozeramailea:</i>	<i>Eva Abuin Bideburu</i>

Aurrez zehaztutako araudiaren baitan, osoko bilkura honi berri ematen zaio, apirilaren 20an aurkeztutako idatziaren bidez, BALEIKE udal taldeko bi kideek, bozeramaile gisa jardun duen Eva Abuin zinegotziak karguari uko egin ostean, Igor Urizar Murgoitio bozeramaile izendatzea erabaki dutela.

**3.- PROPOSAMENA BIDE GARBIKETAKO ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEKO (BIGARRENA). (2006CHOZ0038)**

Udal Plenoak, aho batez, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek txostena aurkeztu dute "CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES, SA" enpresarekin Arrasateko Udalerriari Kale



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0004**

---

garbiketa eta antzerako beste zerbitzu batzuen gestioaren kontratua”ri dagokion epe luzapenaren (bigarrena) onarpena proposatuz.

Halaber txostenak hurrengo adierazten du:

- a) Udalbatzarrak, 2007ko martxoaren 12an egindako bilkuran, "CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES, SA" enpresari adjudikatzea “Arrasateko Udalerrian kale garbiketa eta antzerako beste zerbitzu batzuen gestioaren kontratua” 1.048.974,70 €tan (urbanizazio berriak sartu gabe) lehendabiziko urterako.
- b) Aipatu kontratua, 3. klausularen arabera, luzatu ahal izango da, alde biek espresuki horrela adierazi gero, urte beteko bi epetan. Iraupen epe luzeena 2017-4-30 izango zen.
- c) Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko urtarrilaren 26an egindako bilkuran erabaki zuen, “CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES, SA” enpresarekin 2007/03/26ean sinatutako kontratua, “Arrasateko Udalerrian kale garbiketa eta antzerako beste zerbitzu batzuen gestioaren kontratua”, urte batez, 2015/05/01etik 2016/04/30ra arte luzatzea, kontratuan ezarritako baldintzetan.
- d) Kontuan izanik kontratuaren lehengo luzapen epea bukatzeaz dagoela, eta alde biak ados gaudela kontratua luzatzeko, luzapen akordioa (azkena) hartzea proposatzen da.

Guzti honegatik, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordeak ondorengo akordioa proposatzen du:

- “CESPA COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES, SA” enpresarekin 2007/03/26an sinatutako kontratua, “ARRASATEKO UDALERRIAN KALE GARBIKETA ETA ANTZERAKO BESTE ZERBITZU BATZUK”, urte batez, 2016/05/01etik 2017/04/30era arte luzatzea (azkena), aipatu kontratuan ezarritako baldintzetan.

**J.L MERINO (IRABAZI):**

Si he levantado tarde también. Como bien dices la prórroga final, esperemos que dentro de un año, estemos hablando en otros términos no de sacar un pliego de condiciones para limpieza viaria de Arrasate sino que estemos hablando de otras propuestas de otros grupos que son factibles, que son más económicas, que son públicas ¿no?

Espero también que por parte del área de OZMA no se nos ha pasado ningún informe que diga que esta empresa ha cumplido hasta ahora hasta el día de hoy perfectamente con todas sus funciones. Eso no está recogido, no lo hemos oído en ningún lado, lo único que se habla siempre son prórrogas, prórrogas y prórrogas.

Le vamos a dar este año, vamos a votar a favor. Pero esperemos que el año que viene hablemos de otras cosas.



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0004**

---

**O.GARCIA (PSE-EE):**

Bien buenas tardes a todos. Agradezco tu indulgencia gracias por darnos este año de más efectivamente el año que viene estaremos hablando de otras cosas bien sea con propuestas de otros grupos municipales como pueden ser el tuyo o de cualquier otro que la presente lo que si tenemos vocación este gobierno es de dialogo y así os hemos trasladado al resto de grupos que de cara al pliego del año que viene.

Esperamos vuestra colaboración y vuestras aportaciones la mano esta tendida y el guante echado y respecto a lo que has dicho que no se ha presentado ningún informe ni nada diciendo que la empresa cumple con todo lo que tiene que cumplir. No es cierto, hay informes que lo acreditan.

El otro día en comisión os dije que si necesitabais cualquier tipo de informe lo pidiereis y es la última noticia que tengo porque nadie me ha pedido nada más.

Es más, sabes perfectamente que por parte del ayuntamiento se lleva un control exhaustivo de los servicios y de los contratos firmados, respecto a clausulas sociales, a contratos con personas etc..

Y hombre lo mínimo que hay que hacer es no faltar a la verdad, Juan Luis.

**J.L MERINO (IRABAZI):**

Por alusiones. Oscar yo no sé si hay un control exhaustivo como dices tú por parte de este ayuntamiento de todos los servicios subcontratados y de las personas subcontratadas, no lo sé porque todavía no lo he visto.

Y el tema de limpieza viaria tampoco lo he visto, ósea por eso he dicho que no tengo ese informe de si esta empresa cumple, ha cumplido o no ha cumplido. Solo es eso.

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Oscar eta bukatutzat ematen diogu gaiari

**O.GARCIA (PSE-EE):**

Como veo que te interesa bastante el tema y que además me parece de ley que tengas toda la información que solicitas. Te invito mañana por la mañana a pasar por los servicios técnicos de OZMA para estar conmigo y te daremos todos los informes que consideres oportunos.



Esp.-kodea: 2016SAPL0004

#### **4.- ELKAR EKIN GIZARTE ESKU-HARTZE PLAN INTEGRALA MARTXAN JARTZEKO MOZIOA. (2016SMOZ0013)**

Pasa den apirilaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak, Gizarte Politika departamentuak (AGI) DSBLa aldatzeko aurkeztutako proposamena berretsi zuen.

Erabaki hau hartzea bultzatu duen oinarrizko arrazoia, (AGI) DSBLaren onuradunak gizarteratzen ez duela lagundu izan da, ahultasun egoeratik irten eta bizi proiektu bat garatzeko tresnarik ez duelako eskaintzen.

Gipuzkoara bakarrik xedatuta egoteak, lurralde desoreka ekarri du Elkargoan, zein Gipuzkoa Lurralde Historikoko herrien artean.

Indarrean dagoen legediaren arabera, oinarrizko gastuen estaldura, Diru sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barnean aplikatu behar da EAE osoan. Gizarteratzea laguntzeko, Beste motatako laguntza integralagoak jartzea ezinbestekoa da, gastu basikoen asetzetik haratago doazenak.

Aurretik esandako guztia kontutan hartuz, Arrasateko Udalak hurrengo Mozioa aurkezten du:

- 1) Gipuzkoara iristen diren pertsonak, egoki hartu, lagundu eta gizarteratu daitezen beharrezkoak diren neurriak hartu ditzala eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari.
- 2) Gizarte bazterketan edo bazterketa arriskuan dagoen pertsona ororen arreta hobetzeko hasitako bideari jarraituz, iragarritako Elkar-ekin Gizarte-esku hartzeko Plan Integrala, lehen bai lehen martxan jartzeko eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari.
- 3) Arrasateko Udal Plenoak Arreta edo Gizarteratze Euskal Eredua aldarrikatzen du.

#### **A.EZKURRA (EAJ-PNV):**

Kaixo Atsaldeon. Alkate, mahaikideok eta atsaldeon guztioi, bueno mozioa ia atera dugu ba mozioan berak dakarren moduan, apirilaren 12an Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazten du non gizarteratzen du non AGIa ezagutzen dan dirulaguntza derrigorrezko sarrera bermatzen duen laguntza hori badirudi 2018tik aurrera ia kendu egingo dela eta horren orde, badirudi ordeko gisa Elkar Ekin dirulaguntza edo plan berri hau martxan jartzen dela hasiera batetan gu ere arduratsu arduratuta geratu ginen adierazpen horiekin Arrasaten dauzkagu 131 pertsona dirulaguntza hori jasotzen dutenak 32 emakumezko eta 99 gizonezko eta hemen nire alboan daukadan Amaia Azpiazuk gizarte ongizateko zerbitzuburuak berak publikoki hala adierazi zuen, guk Arrasatetik gure ardura da beharra daukaten pertsona hauek ez uztea alde batetara eta guk jarraituko dugu pertsona hauen beharrei erantzun bat ematen.

Baina bai esan nahi duguna da guzti hau badakit diskurtso politiko bezala erabiltzen ari dela batez ere EH-BILDU eta EAJ-PNVren aldetik eta nik uste dut normaltasun batetik hartu behar dugula eta azaltzen dut zeren eta orain dela 2012an aurreko gobernuak diputazioko aurreko gobernuak, dirulaguntza hau martxan jarri zuenean egin zuena izan zan, beste aurretik zeuden bi laguntza ezabatu



**Esp.-kodea: 2016SAPL0004**

eta jarri zuen laguntza hau martxan eta orain guri ez dagokigu edo behintzat niri ez dagokit foru aldundiak bere politikak nola bideratzen duen hori juzgatzea eta mahaian daukaguna da hori 2012an martxan jarri zuten, berriz errepikatzen dut aurretik beste bi dirulaguntza kenduta 800.000 €tako dirulaguntza bideratu zen AGI dirulaguntza berri honetara, hasiera batetan 6 hilabete erroldatuta izanik martxan jartzen zan, segituan konturatu ziren hau kriston demanda sortu zen eta urte batera zabaldu behar izan zuten eta gaur egun dirulaguntza honetara 11 milio euro dihoaz eta haber dirua ez da dana, gu ez gaude dirulaguntza hauen aurka ez.

Zeren eta bermatuko izan balu benetan, beharra duten pertsona hauek gizarteratuta daudela ez genuke inongo arazorik izango baina ez da hori bermatu, ez da hori bermatu eta guk Elkar Ekin guk hemen mozio honetan eskatzen dioguna diputaziori hori da, benetan martxan jarri dezatela, gizarterako edo esku hartze atentzio plan integrala non bermatu behar dugun beharra duten pertsonen hezkuntza, hizkuntza beharrak, osasun beharrak, etxebizitza beharrak, bueno guk benetan eskatzen dioguna foru aldundiari da Elkar Ekin plangintza hau benetan azaldu diezaguten nola martxan jarriko dan, noiz martxan jarriko dan eta benetan guztion artean lan egin dezagun. Benetan gizarteratu ditzagun beharra daukaten pertsonak eta berriz berretsi Arrasateko udala eta hemen udal gobernuan gauzenok Arrasaten behintzat guregana ekartzen arazo hau Arrasaten beharra duten pertsona hoien alboan egongo garela. Besterik ez mila esker.

**M.UBARRETXENA(Lehendakaria):**

Beste interbentziorik?

**I.URIZAR (BALEIKE):**

Berriro ere hitz politikak baina ekintzak egin behar diren orduan ikusten dugu ze bide hartzen dizuten ez? Gure iritziz mozioa hau aitzakia huts bat da laguntzen duzutelako eta mozioa hau aurkeztu zuen kontzientzia era baten eta irudia pixkat bat garbitzeko. Ez?

Hipokresia hutsa iruditzen jaku gordina eta justifikazioen artean Maite Peñak esan zuen bere adierazpenetan zuen ikuspegiaren deialdi efektu bat aipatzen zan euren artean zuen ikuspegitik eta eskubiko mutur alderdiak erabiltzen dabien diskurtso berdina kopiatuz ez?

Nik uste dut poliki-poliki imaginarioa bat eratzen ari zaretela narratiba arriskutsu bat sakonean bere funtsean ideia arrazista bat daukana non beti bezala hitz politikak erabiltzen dituzuen baina poliki-poliki etorkinak kriminalizatzen ari zarete.

Intentzioa azalera irten zen aldundiak AGIaren azterketa egiteko orduan teknikariei itaunketa luzatu zienean. Itaunketa bere osotasunean AGIa eteteko bideratua zegoen galderak bide hortan egiten ziren eta alde aurretik harturik bai zegoen laguntza kentzeko borondate hori.

Guk gizarteratze beste ikuspegi bat daukagu eta guk gure herrian beste borondate bat daukagu. Gure aberria eskuzabaltasunez, gizatasunez eta nortasunen ugaritasunez aberastu behar dugu.



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0004**

---

AGIa etetearen aurka gaz eta hausnarketa sakon bat egin beharra badago ez badu momentu batzuetan ez baldin badu funtzionatzen ba aztertu behar da zer ez duen funtzionatzen, ze puntutan hobetu behar dan baina kentzeak uste dut famili asko utzi behar duela momentu ilun baten.

Arrazoi hau guztiagatik baleikeko udal taldeak aurka bozkatuko dau.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Eskerrik asko, Igor. Itxaro.

**I.ARTOLA (EH-BILDU):**

Gure taldeak be ez dau mozio hau babestuko nahiz eta bertan eskatzen diren hiru puntuetako birekin ados gauden eta ez dugu babestuko jarraian azalduko duten arrazoiengatik batetik iruditzen zaigu foru aldundiak iragarri dauen Elkar ekin plan hori trikimailu bat besterik ez dela AGI prestazioak kentzeko erabakia iragarrita eta gero bere burua zuritzeko eta prestazio horren onuradunen, gizarte eragileen eta oposizio politikoen artean sortutako kezka eta desadostasunari aurre egiteko inprobisatu duen izen ponpoxeko asmo bat.

Guk ezin dugu bultzatu asmo hutsa den planik martxan jartzea. Plan batek neurri zehatzak jaso behar ditu eta guk dakigula gaur gaurkoz elkar ekin helburu zerrenda bat baino ez da. Hemen daukat udaletxetara bidali dan papelak eta hemen ez da aipatzen ez hezkuntza, ez hizkuntza, ez kultura, ez zuk aipatutako edo nolabait hemen publikoki defendatu, uste duzun edo esaten duzun hori hemen ez da ezer aipatzen. Ez zuen mozioan ez udaletxetara bidalitako zirriborro edo lau lerroko testu honetan.

Alde horretatik egunen baten gure ustez benetako planik badago EH-bilduk gogo onez aztertuko dau eta baita ekarpenak egin eta bere garapenean lagundu be bai, baina bien bitartean ezin gara posizionatu lantzeke dagoen plan baten alde.

Eta gero bukatzeko, eta hau zure esanetan politika hutsa izango da, baina politika egiten ari gara, EAJren mozioak AGIa ordezkatzeko lukeen plan integral eta eraginkorra baten gisara aurkezten du Elkar Ekin eta gure ustez, horren atzean EH-Bilduren Foru gobernuak sortu zuen AGIa baliogabetu eta desprestegiatzeko asmoa baino ez dago.

Egia da, EAJren mozioa dionez AGI laguntzak ez direla nahikoa ahultasun egoeran daudenak gizarteratzeko. Gizarteratze politika batek gastu basikoak asetetik haratago joan behar du, dudarik gabe, baina AGIaren xedea ere ez zen bere horretan gizarteratzea baizik eta horretarako oinarrizko lehenengo baldintza bermatzea herritar orori bizi irauteko diru sarrera minimoak bermatzea eta hori bai lortzen du eta guztiz bat gatoz, mozioak esaten duenez EAE mailan bermatu behar dela herritar guztien oinarrizko gastuen estaldura eta bide horretan doa, hain zuzen ere, gero eztabaidatuko dugun gure mozioa ere.

Baina elkar ekin martxan jarrita ez dugu hori lortuko ez baidago Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenetan eta beraz, AGIren beharrak bere horretan jarraituko du. Izan ere EH.-bilduk kudeatzen zuen foru aldundiak premia zehatz bati erantzuteko sortu zuen AGI izeneko prestazioa 2012a.



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0004**

---

Eusko jaurlaritzak RGIa eskatu ahal izateko errolda denbora urte batetik hirura igo zuelako baldintza aldaketa horrek babes sistematik kanpo uzten zituen ehunka herritar eta foru aldundiak herritar horien eskubide oinarritzkoenak estaltzeko jarri zuen abian AGI sistema beraz, elkar ekin plan horrek funtsezko eskubide unibertsal horrek bermatzeko AGI bezalako neurri ezean miseria egoerara zigortuko ditu herrialdeko hainbat eta hainbat familia desberdintasuna eta pobrezia areagotuz lurraldean eta zuek esaten duzuen moduan, Arrasaten gutxienez 131 familia unitate.

#### **A.AZPIAZU (EAJ-PNV):**

Bakarrik esatea hiru urtera luzatuko dala beraz, orain sartuta dazenak ez direla bertan behera utzi baizik eta egingo dute hiru urte dirulaguntza horrek hartu RGIra sartu arte ez ditugula daudenak behintzat hortik zehar utzi.

#### **I.ARTOLA (EH-BILDU):**

Ez Baina eskaera egin behar dabe aurten eta datorren urtean erroldatzen dienak kanpoan geratuko dira eta gertatu leike

#### **A.EZKURRA (EAJ-PNV):**

Bueno pare bat gauza esateko. Haber gure mozioa be bai da horretarako foru aldundiari eskatzen dioguna da elkar ekin guk ere jaso dugu danok jaso dugu orritxo hau benetan azaldu dezan esan dezan zertan datzan honetan lan egiteko hori da eskatzen dioguna mozio honen bidez foru aldundiari eta Amaiak esaten dauena da, hau da, 2018 arte gaur egun AGI a jasotzen dauen dirulaguntza horiek jaso daitezke, egia da, 2016ko ekainatik aurrera ezin dela jendea dirulaguntza horietara apuntatu abendurarte bai adin txikiko pertsonak daukatenak, hau da, 18 urte arte daukaten pertsonak dauden familietan horiek abendurarte izango dute.

Eta horregatik guk ere esaten duguna da martxan jar dezatela Elkar Ekin hau edo zerbait jar dezatela lehen bailehen martxan ekainean behintzat jar dezatela martxan guk ere ados gaude, guk ez dugu nahi jende hori kale gorrian geratu dadila eta esan dugu, berresten dugu 131 pertsona horien egoerak aztertuko dira eta daukagu identifikatuta zuek batzordean hor badaukagu zeintzuk diren eta Arrasaten guri dagokigu gure herritarren beharrei erantzutea eta zuek ere barkatu esan didazu Maite Peñak emandako, haber niri ez dagokit Maite peñak adierazpenak hemen defendatzea ez da niri dagokit Arrasateko EAJko udal gobernu bezala berrestea Arrasaten beharra daukaten pertsonen alde egongo garela hori behin eta berriz eta esaten duguna da diputazioari eskatzen diogu bat nator Itxarokin mesedez hau azaldu diezagutela hemen daude hiru lau helburu orokor eta horrekin bat gatoz honek ez digula momentuz ezer esan eta horregatik eskatzen genuen mozio honen babesa izatea zuen aldetik ba gurekin batera eskatu diezaogun foru aldundiari benetan plan berri horrek zer esan nahi duen eta zehatz mehatz hori adierazi dezan bakarrik hori uste genuen hortan bat egingo genuela. besterik ez.

#### **M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**





Esp.-kodea: 2016SAPL0004

Beste interbentziorik? Orduan bozketara pasatuko gara.

<b>Bertaratuak</b>	<b>21</b>	
<b>Aldeko botoak:</b>	<b>11</b>	<b>EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)</b>
<b>Kontrako botoak:</b>	<b>10</b>	<b>EH-BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)</b>
<b>Abstentzioak:</b>		

Beraz, mozioa onartzen da.

#### **5. –POBREZIA ENERGETIKOARI AURRE EGITEKO MOZIOA. (2016SMOZ0013)**

Etxebizitzan tenperatura egokia ezin lortzea, edo lortzeko diru-sarreraren portzentaje handiegia erabili beharra da pobrezia energetikoa, eta bere diru-sarreraren %10 baino gehiago energia hornikuntzan gastatu behar duen familia jo beharko litzateke energetikoki pobretzat.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu zioten pobrezia energetikoaren aurkako borrokan Gipuzkoako udalekiko koordinazioa zuzentzeko, neurriak ezartzea xede izanda. Eusko Legebiltzarrean ere pobrezia energetikoaren aurka borrokatzeko onartutako neurriak onartu ziren. (adibidez Gurutze gorriarekin hitzarmenak).

Horregatik guztiagatik, Arrasateko Udalak zera eskatzen dio Foru Aldundiari:

Udalen eta energia-hornitzaile ezberdinen arteko hitzarmenak sustatzeko, arazo larri honi aurre egiteko.

Jarraitzeko Gizarte-larrialdietarako Laguntzei buruzko 4/2011 dekretuaren aldaketa garatzen, pobrezia energetikoaren kontzeptua sartzearren.

#### **A.EZKURRA (EAJ-PNV):**

Gai honekin pixkat berrestera gatoz EAJtik 2016ko aurrekontuak ia onartu genituenean gainera EH-Bilduk emendakin bat bideratu zenuten eta hori onartutzat geratu zen 20.000 €tako partida bat sortu zen ba aurten urtean zehar Arrasateko diagnostiko soziala egiteko Arrasaten dauden pobrezia poltsak batez ere hor azpi markatzen genuen energetikoa, nutrizionala eta bueno bai indartu nahi genuen gure apustua gai honetan, gure ardura gai honetan baita esatea gizarte ongizateko aste honetako batzordean bueno ia ideia dagoela hau martxan jartzea bueno pixkat berrestera datorrena da gure konpromezua pobrezia energetikoari aurre egiteko gai honi. Besterik ez. Mila esker.

#### **E.BARBERENA (EH-BILDU):**

EH-Bildutik justu antzeko zerbait esatera goiazten gaiaz kezkatuta gaz nahiz eta negu gorria atzean uzten ari garen eta ematen dau maiatzeko eguzkiak hasi diren familia askoren egoera Mondragoen zaila da.



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0004**

---

Zoritxarrez ez dakiguna da zenbat familien egoeran dan, horregatik sartu zan emendakina gobernuak estimau zauena eta bueno pasau die ia, hilabete batzuk aurrekontuak onartu zirenetik orain arte EH-bildu egon da biltzen afektauekin, adituekin, ikusten beste udal batzuetan, beste administrazio batzuetan ze lanketa ari den planteatzen gai honen inguruan eta zentzu hortan hobatzen dugu enbitea.

Gu be asmoa zeukagun mahai gainean jartzeko gaia lehen bailehen eta gure ekarpenak egongo dira eta gure elkarlana ze ikusten dugu gaia inportantea dela eta ezinbestekoa lanean jarraitzea.

**J.L MERINO (IRABAZI):**

Nosotros nos gustaría que esta moción se votara por puntos porque en el primer punto no estamos de acuerdo, estamos de acuerdo en promover convenios entre los ayuntamientos y los diferentes suministradores de energía a fin de afrontar este grave problema.

Nosotros planteábamos o podemos plantear instar a la diputación a que directamente diputación vaya al mercado de la electricidad mayorista, a la subasta, conseguir un 25-30% de ahorro en el coste energético y ese mismo ahorro destinarlo a este problema, no solo al problema de la pobreza energética, sino a la pobreza en general, porque a nosotros no nos gusta mucho los apellidos, pobreza energética, pobreza tal, cuando se habla de pobreza en general ¿no?

Es instar a la diputación y no a los ayuntamientos a que hagan convenios las multinacionales de la electricidad que son las que se están llevando toda la pasta.

Perdón, votaríamos que no al primer punto y si al segundo.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Orain emango dizut Igor bakarrik Juan Luiseri erantzuteko mozioa asteartetik daukazue danok eta horretarako egiten dugu ostegunetan bozeramale batzordea. Mozioak bertan tratatzeko eta horrelako aldaketak proposatzeko eta zuk aldaketa hori proposatu izan bazenu osteguneko bozeramale batzordean ba agian guk aldaketa hori egin izan geneun bozeramale batzordean ostegunean baina gaur pleno egunean mozioa da dana.

**I.URIZAR (BALEIKE):**

Gure aldetik positiboki ikusten dugu ardura hauek azkenean mahai gainean zabaltzea baina iruditzen jaku gelditzen dela nahiko motz mozio hau. Gure ustetan puntu gehiago egon beharko litzateke edo sakonago landu beharko zan arazo bat da. Adibidez, prebentzio alorrean enpresei derrigorrezko protokolo bat luzatzea argindarra eten baino lehenago gizarte zerbitzuekin kontaktuan jartzea, hauek familia unitatearen txosten bat garatu dezaten, famili hau baztertze egoeran dagoen egiaztatzeke.

Beste ekimenetako bat gizarte bono bat adibidez eratzea izango litzateke pobrezia energetiko egoeran dauden biztanleak laguntzeko. Udaletxe bezala be bai arrasateko biztanleei formakuntza edo tailerrak zabaltzea, energia aurreztu eta argindarraren faktura behar bezala ulertu dezaten.



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0004**

---

Estatuko gobernuari etxeko argindarraren BEZa gutxiengora murriztea eskatzea edo Arrasaten lan egiten duten energia hornitzaileak identifikatu eta banan-banan beraiekin biltzea hitzarmenak sinatzeko. Hau hemen jartzen duzue baina guk pixkat zabaldu egiten dugu, enpresak hitz egin ez baldin nahi badute, enpresa zehatz horren aurka neurriak hartzea adibidez, Iberdrolak ezezkoa ematen baldin badau, udalak ez du gehiago enpresa honekin kontraturik sinatuko etab.

Zentzu hortan gu baiezkoa bozkatuko dugu baina espero dugu gai honetan dauela nahiko esparru hobetzeko.

**A.EZKURRA (EAJ-PNV):**

Pixkat Merino jaunari eta zuri bueno berrestea alkateak dioena, ostegunetan egiten dugu pixkat, ez egiten dugu bozeramale batzordea mozioak mahai gainean daude eta pixkat hor gehitzeko edo lantzeko mozioen inguruan bai eskertuko nizuke hurrengo bozeramale batzordeetan horrelako aldaketak egongo balira bertan ez gaur mozioan etortzea.

Dena dela luzatzen dizuet ongizate batzordera eramango denez gai hori, ba gai guzti hauek hor jorratzea.

**J.L MERINO (IRABAZI):**

Cuando vamos a la junta de portavoces, los jueves, es cuando se nos dan los materiales o las mociones ¿no? Pues entonces me callo.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Asteartetan bidaltzen dira. Ez Amaia?

**J.L MERINO (IRABAZI):**

Lo único que hay que hacer nosotros tampoco podemos decidir unilateralmente sin haberlo consultado con el resto de los grupos ¿no?

Nuestros militantes. Entonces

Yo no lo planteamos así ahora lo hemos visto el primer punto que nos chocaba ese punto de hacer esos convenios con grandes empresas de la electricidad y planteábamos, yo creo que se puede hacer si estaríamos todas de acuerdo no sé si se podría hacer modificar ese punto uno. Pero bueno en caso de no querer pues votaríamos en contra como he dicho antes.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Idazkari nagusia hemen daukagu eta berak esan duen bezala asteartetan bidaltzen da beti bozeramale batzorderako deialdia eta mozioak ere asteartetan bidaltzen dira, beraz, asteartetan ia denon edukitzen



**Esp.-kodea: 2016SAPL0004**

duzue mozioak irakurtzeko aukera, ostegun arratsaldean biltzen da bozeramale batzordea eta bi egun daude taldearekin ikusteko eta aldaketak planteatzeko.

Nik uste dut Anuskak esan duen bezala eta beti egin izan dugu horrela es ke ez da lehenengo aldia aldaketak planteatzen direla bozeramale batzordean mozioetan edo adierazpen instituzionalak adostu ditugula edo aurkeztutako mozioak bertan behera gelditu direla guk hala adostuta.

Orduan ez dotena ulertzen da bozeramale batzordean gai honi buruz ezer esan ez duzuela eta orain zatoziela pleno egunean aldaketak eskatzera.

Mozioa da dagoena eta bozkatuko da dagoen mozioa eta hurrengoan bai eskertuko nizueke erabiltzea horretarako dauden organoak eta kasu honetan da bozeramale batzordea eta horretarako da han adosteko, aldaketak eskatzeko eta han gauzak modifikatzeko. Orduan ez dakit ba. Oscar.

#### **O. GARCIA (PSE-EE):**

Labur-labur. Respecto a la moción nosotros adelantamos que vamos a votar a favor de la moción. Nos parece un tema importantísimo es verdad que ya ha pasado el invierno como ya bien has dicho tu Eneko y parece que ahora apremia menos el tema este pero es un tema de fondo agradecerle al partido nacionalista vasco que después de que nosotros nos peleásemos en la primera negociación de presupuestos del gobierno vasco para meterlo haya abierto los ojos y vea que existe esa necesidad. Muchas gracias.

Y estoy completamente de acuerdo contigo es un tema muy serio Igor es un tema de mucho fondo de muchísimo calado, me gusta las propuestas que están haciendo lo que no me gusta tanto es que tu ha sido jefe de servicios sociales durante seis meses y no los has sacado antes.

Entonces me imagino que os está sentando muy bien la oposición o has venido ver dios ahora

#### **M.UBARRETXENA(Lehendakaria):**

Uste dut ia nahiko hitz egin dugula eta mozioaren bozketara pasatuko gara.

<b>Bertaratuak</b>	<b>21</b>	
<b>Aldeko botoak:</b>	<b>20</b>	<b>EAJ-PNV (8), EH-BILDU (7), PSE-EE (3) eta BALEIKE (2)</b>
<b>Kontrako botoak:</b>	<b>1</b>	<b>IRABAZI (1)</b>
<b>Abstentzioak:</b>		

Mozioa onartua geratzen da.



Esp.-kodea: 2016SAPL0004

**6.- EH BILDUKO UDAL TALDEAREN MOZIOA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK DBL-AGI PRESTAZIO KENTZEKO DITUEN ASMOAK DIRELA ETA.(2016SMOZ0011)**

2011ko bukaeran, Eusko Jaurlaritzak gure Gizarte Zerbitzuen prestaziorik garrantzitsuenetako bat (Diru sarrerak Bermatzeko Errenta- DBE, RGI erdaraz) kobratu ahal izateko eskatzen den erroldatze denbora igotzea erabaki zuen; zehazki, urtebete eskatetik hiru urte eskatzera pasatu zen.

Horrek pertsona asko automatikoki gure babes sistematik kanpo geratzea ekarri zuen.

Murrizketa sozial horri aurre egiteko, 2012ko uztailan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza (DBL, AGI, erdaraz) sortu zuen, non prestazioa jasotzeko eskatzen den erroldatze denbora urtebetekoa den; hain zuzen ere, Patxi Lopezen gobernuak murrizketa egin aurretik, DBE kobratzeko urtetan eskatu izan zen erroldatze denbora.

Beste modu batean esateko, DBE urtetan izan zuen erroldatze denborara itzuliko balitz, DBL berez desagertuko litzateke, lehen zeukan estaldura soziala berreskuratuko lukeelako. Murrizketa murriztuko litzateke.

DBL izeneko prestazioak izaera unibertsala dauka, hau da, baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei zuzenduta dago, berdin da nongoak diren, DBErekin beti gertatu izan den bezalaxe.

Gogoratu behar da DBLa Gipuzkoan bizi diren 1.422 familia unitatek jasotzen dutela eta familia horietan 700 ume daudela, legez babestu beharrekoak.

